

Maite - kanta

(Gurutzeko Juan deunaren
Cántico Espiritual'en azalpena)

Otoitzak eta intziriak ez dira naikoa Maitea aurkitu al izateko. Ezta, bestetik, irugarrenen esku-emotea be. Geiago bear da, ta arimeak, jakiña, aurrerago jo bear dau; naiera gartsuz, benetako maite-suaz billatzen ba'dau beintzat, mende daukazan neurriak artu ta ingirak egin arte, ez da ziurki aspertuko. Egi-egiaz Jainkoa maite dauan arimea ezta atzeratzen; bai, ostera, alegin guztiak egin Jainko-Semea, bere Maitea aurkitzen, aurrean jarten yakozan oztoparriak gorabera. Al dauan guztia burutu ondoren be, ez dago pozik, ezer ez dauala egin uste izanik.

Irugarren ahapaldi onen mamiña txastaturik, arimeak berak, Maitearen billa asi nai dau, egiaz eta egitez, ingurukoen laguntzari jaramonik egiteke. Ta bertatik ze bidez billa asiko dan diño; au da: birtuteetan, on-egiñetan gaituko da, trebetuko da, bizimodu eragille ta begira otoitzari loturik. Ez dau ortarako atsegiñik gura, ezta doai ta mesederik be. Ta arimearen iru

etsaien indar ta zelata guztia dira naikoa izango artutako bidea galazo ta bertan sostorrak jarteko. Mundua, txerrena ta aragia dira iru etsaiok.

Onela diño irugarren bertsoan, oso kementsu:

Neure Maitean billa,
mendi-aran orreik zear noake;
ez dot loraik artuko,
ez naz piztien bildur,
zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Maitearen atzetik noa, bai, lastanen dodanaren billa. Arimeak gauza bat adierazten dau, argi ta garbi adierazte be. Egiaz aurkitu al izateko, ez da naikoa biotzez ta miñez laguntza eginoren laguntzaz esitzea. Aurrerago jo bear dalat, norberak egin bear dau bere lana. Jainkoak gurrerago dau norbere lana; besteak beragaitik dagiezan guztien gainetik gura izan be.

Maite billa

Arimeak, Kristok esana dakar bertatik gogora: «Zoaze billa ta aurkituko dozue» (Luk., 11, 9). Urtetea erabagi dau, beraz, egiaz Maitearen billa urtetea.

Ez, ez dau askoren antzera egin nai: itz egin, ta ori be txarto, ta or Jainkoa eskuan. Onakoak ez da be gozotasunik itxi nai, ez pozik, ezta dagozan lekutik jagi be. Jainkoak berak emon bear dautse olakoai dana egiñik, aora ta biotzera emon; euren atsegin, poz eta alperriko naiak galduko dabezalakoan, ez dabe urratsik be zeartu gura. Baiña jarrera txepel ortatik jagi ta Jainkoaren billa urten arte, nai ta oiuz zoliak bota, ez dabe Maitearik idoroko. Olan ibillia dogu Abestietako emaztea be, bai ta ez. «Gazbaz, neure lotokian, neure biotzak maite dauanaren billa ibilli. Billa ibilli bai, baiña idoro ez. Jergiko naz ta uria arakatuko dogu auzo ta zeiak zear nabilke. Billa ibiltzak maite dauanaren billa ibilli.» (Abes., 3, 1). Billa urten arte, iñundik be; neke-lor ta auzi-lorrrak igaro ondoren, orduantze aurkitu ebala diñosku.

Atsegiñean eta atsedenean nasai egonik Jainkoa billatu nai dauanak, gabaz billatzen, eta jakiña, ezin aurkitu. Baiña birtute egitez, bere atsegin, gozagarri ta oldeen ogea beratara itxi ta billa dabilleanak egunez billatzen dau, ta edu orretan dudarik bage aurkituko dau: gabaz idoroten ez dana, egunez agertzen. Auxe aitzen emoten

dau, ederto asko, Senarrak berak, Jakituri deritxon liburuan: «Argia da jakintza, ta ez da iñoiz zimeltzen; billa dabiltsanak aurkitzen dabe. Berak aurrea artzen dautse billa dabiltsanai, ta nabari izan. Goiz-urratsetik aren billa dabilleanak ez dau lanik egingo, bere etxe. ko ateetan jarrita aurkituko dau.» (Jak., 6, 1). Zer diño onegaz? Arimeak, bere naimenezko etxe laga ta bere atsegin-ogetik urten danean, urtenaz bat, antxe kanpoan aurkituko dau ala egiazko jakituria, au da, Jainkoaren Senara, bere Senarra.

Onela diño bertatik:

**Neure Maitean billa,
mendian-aran orreik zear noake.**

Garaiak izan oi dira **mendiak**. Eman onoinen edo birtuteak adieraz nai dira: batetik, birtute oneik garaiak diralako, ta bestetik, euretara igoten artu bear diran neke-lorrrak, aundiak diralako. Birtute orreitatik zear **joango** dala diño, begira bizitza egiñaz. Zeru-otoitzari ekingo dautso, aspertu barik. Goiko gauzak begiz begi ditula biziko da, biotzez maite dauana oiuz, leia biziz billaturik.

Beeko lurraldeai, ur-ondoetan

zabaltzen diranai, **aranak** deritxegu. Gorputz-zigortze, penitentzi ta barru-jardunak dituzu emen. Onein bitartez billatuko da Jainkoa, bertsoak diñoanez; begira bizitza ta eragin bizitza alkartu bear dira: nai ta nai ezkoak doguz biak, argi ta ziur Jainkoa billatu ta birtutez jabetu al izateko.

Au edo da, beraz: Maitearen billa nabilke, ta birtute garaiak egitez sort-erazo ta jarriko ditut apurka apurka; ta bide batez, beeko ildura, soin-zigortze ta arlo lastetan neure burua apaldu ta eratsiko dot. Zelan Jainkoa billatu? Bidean aurrera joaz. Zelan? Jainkoagan ona egiñik eta gaitza bere kautan lasturik, Onela edo:

ez dot lorarik artuko.

Jauna aurkitzera eltzeko, biotz soil, erantzi ta sendo baten jabe izan bear da; Jainko ez diran txar eta on guztietatik azke ta libre daganaren jabe. Ez, ezin leikegu Jainkorik idoro arima askatasun eta sendotasun benetako barik.

Ondasunik ez

Billatze ontan arimeak, bertsoak diñoanez, ez dau lorarik arteko;

eztan bide-egaletako lili pitxie be-gira astirik emongo. Zeintzak dira lora orreik? Bizitzaldian eskinka lez euki daikeguzan atsegin, poz eta naiera guztiak: oneik, izan be, arimeak esku artu ta jasan nai babilitu, bideari ekiteko eragozpen aundi izango litzakioz. Iru eratakoak nunbait: aldikoak, zentzunetakoak eta gogozkoak. Oneik nai areik biotza bete oi dabe; ta arimeari, osoro erantzi ta billosuteko, eragozpen yakoz, Kristo'ganako bidez sinalarik, onakoetan, aukia artu ta gogoz jarri babilidu. Maitearen esku bage aurkituko dogu, ta onela zear nabilke. Billa ibilli bai, baiña idoro ez. Jergiko naz ta uria arakatuko dogu auzo ta zeiak zear nabilke. Billa ibiltzak maite dauanaren billa ibilli.» (Abes., 3, 1). Billa urten arte, iñundik be; neke-lor ta auzi-lorrrak igaro ondoren, orduantze aurkitu ebala diñosku.

Edo da, beraz: Maitearen billa nabilke, ta birtute garaiak egitez sort-erazo ta jarriko ditut apurka apurka; ta bide batez, beeko ildura, soin-zigortze ta arlo lastetan neure burua apaldu ta eratsiko dot. Zelan Jainkoa billatu? Bidean aurrera joaz. Zelan? Jainkoagan ona egiñik eta gaitza bere kautan lasturik, Onela edo: ez dot lorarik artuko. Jauna aurkitzera eltzeko, biotz soil, erantzi ta sendo baten jabe izan bear da; Jainko ez diran txar eta on guztietatik azke ta libre daganaren jabe. Ez, ezin leikegu Jainkorik idoro arima askatasun eta sendotasun benetako barik. Ondasunik ez Billatze ontan arimeak, bertsoak diñoanez, ez dau lorarik arteko; ezta bide-egaletako lili pitxie be-gira astirik emongo. Zeintzak dira lora orreik? Bizitzaldian eskinka lez euki daikeguzan atsegin, poz eta naiera guztiak: oneik, izan be, arimeak esku artu ta jasan nai babilitu, bideari ekiteko eragozpen aundi izango litzakioz. Iru eratakoak nunbait: aldikoak, zentzunetakoak eta gogozkoak. Oneik nai areik biotza bete oi dabe; ta arimeari, osoro erantzi ta billosuteko, eragozpen yakoz, Kristo'ganako bidez sinalarik, onakoetan, aukia artu ta gogoz jarri babilidu. Maitearen esku bage aurkituko dogu, ta onela zear nabilke. Billa ibilli bai, baiña idoro ez. Jergiko naz ta uria arakatuko dogu auzo ta zeiak zear nabilke. Billa ibiltzak maite dauanaren billa ibilli.» (Abes., 3, 1). Billa urten arte, iñundik be; neke-lor ta auzi-lorrrak igaro ondoren, orduantze aurkitu ebala diñosku.

Oar, mesedez: munduko ondasunak eta gorputz-atsegiñak ezetik, ezpirituzko poz-atsegiñak bezegiz eukiak edo billatuak ba'dira beintzat, Kristo Senarraren gurutz-bidea eragotzi oi dabe. Aurrera joan bear dauanari, beraz, ez yake egoki lora orreik artzen ibiltea. Ez au bakarrik; izan daizala baita adore ta kemen be, jarraiko au esan al izateko:

ez naz piztien bildur,
zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Arimeak daukazan iru etsial—gizartea, deabrua ta aragia—aitatzen dira emen; onexek bai ditugu, eraso ta burruka eragirik bidea galazoten daukugue. Piztiak esatean, mundua akliaratu nai da; zakarrak esatean, deabrua, ta mugak esatean, aragia.

Piztiak deitzen dau mundua; Jainkoaren bidea asten dauan arimeari, izan be, piztiz beterik iduritzen yako mundua, zemaika, kiñuka ta larderiaka. Iru gauza datorkioz, batez be, begi aurrera: Lenen, gizartearen ondo-ikusiak, adiskideak, ospeak, kemenak eta ondasunak galdu egingo ditula, uste dau; bigarren —ta ezta beraz

piztirik txikiena— aurrerantzean ia zelan eroango dauan munduko pozik eta atsegiñik iñoiz be ez izate; ta, irugarren, miin txar guztiak kontra jagiko yakozala ta esames, iñaja ta purrustada nalkoa eloko dituela, bere lepotik ederto barre-zantzo egiñik. Arima batzuei, biziro jarten yakez aurrean idurizun oneik, eta oso aldatz-gora egin oi yake, pizti onein kontrako burrukan irautea ezeze, hideoan ibilten astea hera be bai.

Arima marzal batzuei, gaiñera, beste pizti batzuk aurreratu oi yakot; barru-gogozkoak dira berrak, eragozpenak eta tentaldiak beste batzuk; baita igaro bear ditugun, eta igarotea egoki yakezan, era sakrotariko neke-min eta lanak be. Oneik, Jainkoak berak bialduak dira sarri, osotasun heterajako nai ditun arimai bialduak; zelan urrea lez aztertzen bai ditu Jaunak. Dabid erregeak onela: «Zintzo en gaitzak asko dira» (Salm., 33, 20). Argitu ta ziurpetze onetan, baiña, ez dauz egundo be bertanhera izten, danetatik begiratu baiño. Orixegaitik, munduan diran zer guztien gaiñez bere Maitea kutun dauan arimeak, errez esan daike: «Es naz piztien bildur».

Zakarrak eta mugak

Deabruak dira bigarren etsai. Ta polito diño poemaegilleak, zakar eta indartsu dirala. Sendo ta traketsak dira, izan be; ta indar aundiz jarten yakoz arimeari bidean, igaro bidea arturik. Onein tentaldi ta maltzurkeriak, ain zuzen, gorago aitaturiko eragozpenak baiño be gogorragoak dira, ta aspiratzaileko latzagoak. Zearka jarriarik, mundua ta aragia baiño be gordiñagoak dirala, autor bear, Deabrua, gaiñera, arimea zirikatzaile, beste arerio biokaz, ots, munduagaz eta aragiagaz, indartsu batu oi da.

Dabid'ek ortazi: «Zakarrak ni il billa dabilta» (Salm., 53, 5). Sandoak eta zakarrak dira gure arima billa, gu zelan galduko, atertu bako ekiñean dabiltazen etsaiok. Ezta giza-indarririk onenaikaz bardodu leikegunik. Jainko-indarrak menderatu daikez bakar-bakarrik. Eit euron maiña, azerikeri ta kake-makoak ulertu al izateko be goi-argi ixuri ugaria bear da.

Ez dago, ondorenez, zetan esanik; deabruon indarra goitu bear dauan arimeak otoitzari ta barrubizitzari ekin bear dautso, nekatu barik; orrezaz gaiñera, ezingo ditu onein maltzurkeriak ulertu soin-

ildura ta apaltasun barik. Paul deunak zeozegaitik diñotse bere eleiztarrai: «Deabruaren maltzurkeria gogor egiteko, jantzi eizue Jainkoaren izkillu-soiñekoa. Gure burruka ez bait-dogu aragiaren eta odolaren aurka, altsuen, indartuen, mundu illun onetako nagusien eta zerupean dabiltazen espiritu gaitzen aurka baiño» (Ef., 6, 11-12). Aldean dardogu aragia, gure etsai; odola, berriz, mundua da. Deabruak, ostera, oneik baiño be indartsuagoak yakuti ta izoititu sarri onein aurka burruka egin bear. Zelan? Esan dogu: Jainkoaren izkillu jantzi. Argi ta garbi Oraitza eta Kristoaren gurutzan. Oraitza bait-dago apaltasun ta sibi-ildura.

Arima piztar eta gure arima berrak onein aurrera be biltzen. Adoratu ta Maite onet aurrera.

zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Zeintzuk dira muga ta luban oneik? Aragiak, ezpirituairen kontra, berez daukazan ezezko, iguin ta batu-eziñak. Aragiak, ba, ezpirituairen kontra dagi, Paul deunak diñoskunez: «Aragia ezpirituairen aurka dabil» (Gal., 5, 17). Aragia muga lez jarten yaku, ezpirituzko bideari aurre egiñik.

Muga oneik igaro bear dauz arimeak, aurrean leukakezan oztoporri ta matratzu guztiak urratuaz; bai, zentzunen zalekeri ta berezko griñak ezpirituaren erabagiz suntsitu ta erre kara jaurtirik. Arimeak izan be, onakorik ba'leu, ezpiritua arein azpian lotuta legoke, egi-bizitzara ta gogo-atsegiñera aldatu eziñik. Paul deunak argi adierazo euskun au, esanaz: «Aragiaren erara bizi ba'zarie, il egingo zarie; ezpirituaren indarrez, aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'di.

tuzue, barriz, bizi izango zarie» (Errom., 8, 13).

Auxe dogu ahapaldi onen muiña; onela jokatu bear dau arimeak bere Maitea billatzeko bidean. Kemenez ta iraupenez, lorarik be aritu baga; piztien kontra burrukatu ta gaztelu ta mugak igaroteko biotz ona izanik. Onoimenezko mendiak eta ibarrak zear joan bear dau, adore biziz gainezka.

AITA ONAINDIA

DENDARIK DENDA

Neskato bat bere anitzkoreki: Donostiko kale zear, dendarik denda zebillen, eskaparateak ikusiz. Bata bestea baño politago, ederragoa iduritzen zitzaion gure umetxoari, baño alako hatean iritzi ziran Parmazi baten aurrera... ta; potoak emen, potoak an, ta abar, oso itxusi iduritu zitzaion gure neskatoari:

- Ama, au denda itxusia, Zer saltzen dute emen?
- Emen gaxoak sendatzeko botikak saltzen dituzte.
- A!! Orregaitik da ain itxusia.

M-tar-S.

APAIZAK

137/

Apaizak Gotzaien laguntzalleak dira. Gotzaiak euren eskubideen eta almenen zatia damotse apaizai. Apaizak, Gotzaien, Aita Santuaren eta Kristo Beraren ordezkariak dira elizan. Gotzaiak ezin leikie berak bakarrik bere eliz-barrutiko ardura izan. Ezin leikez berak bakarrik zeregin guztiak bete. Ezin berak bakarrik eliza guztiak iker-taldu; ezin berak bakarrik irakatsi, meza esan, eutortu, ezkontzak egin, azken-sakramentuak banandu. Apaizak daukoz ortarako; onein bidez zuzentzen dau bere eliz-barrutia. Gotzaiak egiten ditu apaizak, berak gero errietara biatdu elizen eta kristauen ardura izan dagien.

Apaiza apaiz lez, ez da Laterriaren menpeko; ez dau artzen gizonakandik bere nagusitasuna, bere eskubideak. Laterri-agintariak ezin kendu leikeoz apaizari bere eskubideak.

Zelako eskubideak daukoz apaizak? Irakatsi, santutu ta zuzendu. Kistarrak irakatsi, kistarrak santutu otoitzaren eta sakramentuen bitartez eta zeruruntz zuzendu.

APAIZAREN EGINKIZUNAK

Apaiza Jaungoikoaren seme ta erriaren eta zeru ta lurraren bitarteko da.

Apaizak erlijioa irakasten dabe. Apaiz izan aurretik, urte mordoa egin dabe ikasten. Ondo gertuta dagoz erlijio-gaietan. Erlijio-egirik garrantzitsuenak irakatsi bear dau-tsez euren erritarrai zeruko bidean zuzen jokatu dagien.

Apaizak eliztarrak santutu dabe, Elburu au dauke, Iru bide daukez ortarako: otoitza, meza ta sakramentuak.

Apaizak zeruruntz zuzentzen dituzte bere eliztarrak, Jaungoikoaren eta erriaren bitarteko da. Beraz, apaizak, azaldu beasi dituzte erriar jainko-legea; au da, zer egin behar den, eta zer daukan galoregata.

Aundia benetan apaizaren elburua! Aundiak benetan bere eskubideak! Eta alan be, errai asko dituzte alde guztietan. Zergaitik? Bide txarretik dabilzaneei traba dagitselako. Eta asko izan gaur bide txarretik dabilzanak.

BATIKANO BIGARREN BATZARRAREN ITZAK

Batikano Bigarren Batzarrak argi ta garbi azaldu eban apaiza zer

Maite-kanta

(Gurutzeko Juan deunaren *Cántico Espiritual*'en azalpena)

Jainkoa billatu bear da. Ta fedeak eta geure buruko errazoi-indarrak ezarten dausku billaketa ortarako adorea. Aragiaren lera ta makur guztitik lenengo norbere izatea garbitu bear da; ezta beeko ezer billatu ta maite izan bear, ezertariko bildur barik beti gorantza begira bizi baiño.

Billaketa ontan auxe da noski arimeak egin bear dauana: lurreko aisegin-gozotasun guztiak itxi, zirikaldi ta eragozpenak azpiratu ta kemenez jantzirik, Jainkoa, bere Maitea nor dan ezagutzera zuzendu. Zelan? Zelan lortu, baiña, ezagutze ori? Nundik asita? Munduko izakiak, gauzak ditugu ortarako lenengo mailla. Guk begiz ikusten doguzan zer guztick ez al dira Jainkoak egiñak? Oneik ezagutu ezkeror, errez joko dogu maillarik mailla, euron Egilleagana be.

Jainkoa ezagutzeko, egiaz, norbere burua ezagutu ondoren, izakiak zer d'ran jakin bear dogu, nok egiñak diran, nundik datozan. Munduko gauzen ederra, aundi-zabala ta sakona ikusi ta aztertu ondoren, errez jakin geinke Jainkoa zein ederra, aundia, indartsua, jakituna. Errez Paul apostoluak ederto: Izan be, bidebakokeriz Jainkoaren egiaz jakin daben gizonen gaiztakeri ta bidebakokeri guztien aurka, Jainkoaren asarrea zerutik agertzen da: Jainkoaz jakin daitekena agirian d'ituzkie Berak erakutsi dautse-ta. Aren ikusi-eziñak, mundua sortu zanetik eragindakoen ezagueraz ikusten dira; beraz, alako gizonak ez dabe atxirik; Jainkoa ezagutu ondoren, Jainkotzat goratu ta eskerrik emon e dautscelako» (*Errom.*, I, 20-21). Arimeak, ba, Jainkoak ditun gauza ikusi-eziñak, Jainkoak berak egiñiko gauza ikusgarrien bitartez ezagutu leke. Eta errez ezagutu be.

Ori ba-daki arima Jainko-zaleak, eta munduko izakiai dei dagitse, berak maite dauanagaitik itandurik:

Ci baso ta leku itsu,
Maiteak eskuz jarriak emaro!
Ci lore zuri-gorritz
pitxitu zelai musker,
esan zuekandik danez igaro!

Cargarria da benetan arimeak egiten dauan itauna. Zeru-lurreko zer guztiai dei dagitse: mendiai, zugatzai, erreka, egaztiai, eguzkiari, izarrai. Ta zer erantzun artzen ete dau? Sorkari guztiak egia diñotse: «Bai, emendik igaro da Jainkoa. Ak egiñak gara; baiña ez gara gu Jainko, Aren lorratz baiño». Oiñez ibilliak izten dauan aztarna; zerbait, baiña Bera ez. «Mundu zabalari galdegin nion —diño San Agustin'ek be— ene Jainkoaz, eta «ez nauk ni» erantzun zidan. «Ark egin niagok» (*Aitorkizunak*, 10, 6).

Gauza guzti orreik, baiña, naiz-ta Jainko izan ez, biotza zauritu dautsoe arima gaixcari, maite itzez zauritu be. Eta maitatzeko d'rautsoe guztiak ots batean. Zer maitatu? Agustín deunak erantzun: «Ez gorputz eder, ez aldi eder, ez begiok maite duten argi zuria, ez lelo guztien doño gozo, ez lore ta gantzuki ta usainki guri, ez mana, ez ezti, ez aragi laztangarri; ez dut au maite Jainkoa maite dutanean. Alare argi antzeko zerbait maite dut, mintzo edo usain edo janari edo nere giza-barneko antzeko bat dut maite, argi egiten ditanean: tokiak artzen ez eta mintzo du, aldiak ebasten ez eta usain du, aizeak barratzen ez ta jasta du, janak ez du tipitzen, aseak ez du erauzten atxiki ba'lekio. Au dut maite nere Jainkoa maitatzean» (*Ibid.*, 10, 6).

Toki bitakoai dei dagitse arimeak: lur onako gauzai ta zerukoai, Lurrekoai aurrenik:

Ci baso ta leku itsu!

Zer dira **baso** oneik? Eta **leku itsuak**? Munduko zati edo zatiak nonbait: lur, ur, egurats eta su. Gaiok, izan be, basarte ikusi izaki mardul zarratuz beterik daukaguz. **Leku itsuak** deitzen emen arimeak, gai bakotxean izaki asko ta milla eratekoak d'iralarako: lurrean, abereak eta landarak kontu-ezin-ala; uratan, mota bereziak millaka; eguratsean edo aidean, makiña bat egazti berrak; bata baiño bestea ederragoak; eta su-gaia, azkenez, beste gai guztiak berotu ta iraun-azoten dituna. Olan gauza bakotxa bere lekuan ipiñita dago, ta bere giroan bizi da: jaio ta azi oi dan oillo-lurrean letxe.

Edu orretan, izan be, jarri zituan Jaunak. Asiera deritxon liburuan irakurten dogu: «Bedi argia» ta argia izan zan. Orrelaxe gaua, lurra, itxasoa, goiko argi-zaiak eta abar. «Lurrak sortazo begi bedar ezea», ta orrela jazo; «urak irakin begi», ta bizizko arnasadun piztiz bete zan; «bebiltz egaztiak lur gainez», eta egazti ta txoriz bete zan eguratsa. Olan gauza guztiak.

Arimeak, bada, gauza guztiak Jainkoaren aginduz egin zirela ikusiaz, urrengo bertso au kantatzen dau:

Maiteak eskuz jarriak emaro.

Onako au gogora dakargun emen: gauzetan dakusgun aunditasun au, eta diferentzi berezi oneik, **Maitearen eskuz** sortuak eta egiñak izan daitezakala bakar-bakarrik. Jakiñaren gainean diño **Maitearen eskuz**; Jainkoak, bada, iñoren eskuz, aingeru ta gizonen bitartez, esaterako, gauza asko eginda be, gauzak sortzea, ezerezetik ateratea, eztau iñoiz egin bere eskuz izan ezik. Arimea, beraz, ori jakiñik, Jainko maitearen barne-suan sutuago egin oi da, izakiak, au da, munduko gauzak begiratu ta gogoan erabilliaz.

Bai, begiakaz dakusguzan gauza guztiok Jaunak bere eskuz egiñak dira, edler eta zoragarri. Olerkariak are geiago:

Ci lore zuri-gorritz pitxitu zelai musker.

Musker marmutzak kolore berdea, orlegia izan oi dau, inuruko ezotasunak emonda edo. Zerua be orrela dogu, kolore berdeakoa, beti eze ta mardul dagalako. Jainkoak egiña ori be, **Lore zuri-gorritz**, au da, aingeruz ta santuz baterik dago zerua: beti mardo ta eze. Aingeru ta santuok pitxitu ta edertzen dabez goi-aldeak, urre bikaiñezko onrai lilluragarri baten pareko egiñik.

Goi-zelai ta landok aldiro **musker**, berde diraeu bai. Zergatik? Zeruko gauzak beti zimeldu-eziñezko berdetasunean dirauelako. Arima gaurzak, luzeka be, ez yakuz ilten, ez igartzen. Arima zinzoak, zelan zelai guri otzamarretan lez, poztu ta atsegiña artu darce. Eleizak be auxe berau dakarsku gogora il-zorian dagozan arimen alde jainkoa otziztean, arei ango berdetasuna opa izanik: «Jainko bizirik emeak jarri zaiezala egundo be margulduten ez diran landa ta lurak zoragarrietan» (Eleiz-liturjian).

Eta azkenez:

Esan zuekandik danez igaro!

Gorago esana bera dogu emen barrero aitatu. Au da: «Esan, otoi, zelako edertasunak diran Jainkoak sortuak. Iragar, bai, zelan itxi zaitezuan bazter guztiak guri ta mardo, zoragarriki apainduta.»

Aita Onaindia

Begirapen geiegiak

Orain dakardana aspaldikoa da. Ez, beintzat Formosa ontakoa. Izaro ontan, bizi geran egun berri auetan, biztanleek bestelako buruaustak dituzte.

Or ba:

Garai zaar aietan, Txina zabaleko iainkoaizundegi kaxkarrean arrinabarrezko irudi biziran. Autsez ongixto itsusituak, eta elbikutsuz usaidun Lao-Tzu'ren irudia eta Budda'ren irudia.

Bein alderdi aietako otoilari eta erdi-igarle omen zan bat estalpe artara agertu zan. Zer ikusiko? Ta, aulkirik aintzatsuenean Lao-Tzu!! Etorri berriari ez zitzaion ongi iruditu. Okarrena: otoitzerako gogoera bat oztu!:

—Auxe bear genduan! Bertako semea bait-degu, Lao-Tzu aintzagarria da txiko!! Bañan orrek Budda argitsuari eraman? Bai zera!

Ta, izerdi puska ederra atereaz, nolabait ere, Budda'ren irudia toki aintzatsuenean ipiñi zuan, ta Lao-Tzu'ren irudia txokoratu. Lan

zuzena egin zuelakoan pozik, erdi-igarle buru-soilla alai itzuli zan.

Urrena iainko-aizundegian sartu zana, beste iritzikoa izan! Ta, barru artan guztia atzekoz-aurrera iraulia zegoala ikusiz zion:

—Ongi ala ere!! Ikusteko guztiak ez ditugu ikusi! Budda ohoin biurtu zaigula! Iakinlari Argitsua goragarria noski! Bañan, bai zera! Lao-Tzu aña ez! Esango nuke! Gure Lao-Tzu, geron ibar orietako seme aundia bai ospetsu! Aundizki guztien aita eta zaindari!

Ta, ezer esan gabe, irudi bakartokiz aldatu zituan.

Asi izan ba'ziran asi, irudi bakartok bi ikerleak maiz ziran zuzentzen. Berriz eutsi bearrez, eta irudi bakartok bere iarlekua ongi zaintzen. Astean bein gutxienez beren aldaketak egiten zituzten. Ta, arritzekoa!! elkarren berri bein ere iakin gabe. Bait-zirudian auziak ez zuala azkenik izango!